

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gaur egun, bizi dugun abiadurarekin eta gauza berriak izateko nahiarekin produktu berritzaile eta eraginkorren eskaria geroz eta handiagoa eta garrantzitsuagoa da merkatuan. Horregatik guk eskaera horri erantzuteko prest gaude musika duen ile lehorgailu isilarekin. Gure produktua lehorgailu funtzional tradizionalaren eta abantail modernu batzuen, hala nola zarata ez egiteko eta musika jotzeko aukera, elkartasunaz osatuta dago. Osaketa hau dela eta, ziur gaude produktu honek gaur egungo moda kontsumitzaileen beharrei erantzungo dituela; hurrengo arrazoiak direla eta.

Hasteko, gure produktuak duen isiltasunari begira; oso aproposa iruditzen zaigu, batetik, zarata handiaren faltarengatik ingurune lasai eta erosoago bat eskaintzen du beste antzeko produktuekin konparatuta. Horrekin batera, zarata falta honek estresa murrizten du, eta atseginagoa egiten du ilea lehortzearen esperientzia. Bestetik, produktu hau bereziki onuragarria da bizileku partekatuentzako, izan ere, inguruandauden beste pertsona kez dituzulako gogaitzen eta istiluak ekiditen dituzulako.

Bigarrenik, musika jotzeko aukerari begira; ilea lehortzen igarotzen den denbora atseginagoa bihurtu dezakela uste dugu, hain zuzen ere, musikak erabiltzeak erlaxatzen lagun dezakelako eta distrakzio-iturri bat bezala erabili daitekelako. Dena den, gure bezeroen abesti gustukoenak ez dira gure lehorgailuak eskaintzen dituen abantail bakarrak; aukera ere izango dute beraien podcast eta audiliburu gustukuenetaz gozatzeko ilea lehortzen ari diren bitartean. Zeregin honek norberaren produktibitatea hobetu dezake eta eguneroko jarduerak pixka bat atseginagoak egingo ditu.

Azkenik, gure produktuarekin eman nahi dugun mezu nagusia bere prezio baxua da, nahiz eta jakinda zein berezia eta ezberdina den merkatu bereko beste produktuekin alderatuta. Guztiek modaz gozatzeko aukera izatea eta moda esperientzian parte hartzeko publiko zabalago bat nahi dugu. Moda gehiengoarentzat eskuraezina den muga hori hautsi nahi dugu gure produktuarekin.

Laburbilduz, musika duen ile lehorgailu isila ezinbestekoa iruditzen zaigu gaur egungo merkatu modernoan. Izan ere, edertasun produktu tradizional baten antzekotasunak izan arren, gaur egungo azkartasun, eraginkortasun eta beharrezko erlaxazioa harekin eramaten ditu. Esperientzia atsegin eta polit bat sustatuz merkatu honetako kontsumitzaile gehienei.